

A woman in a white dress is performing a dance move in a town square. She has one leg raised high. In the background, a man in a white shirt and dark pants is also dancing. A crowd of people is watching the performance. The scene is outdoors with buildings and trees in the background.

Asteasuko
SANPEDROAK
2023



asteasuko udala



Diseinua

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
San Esteban auzoa, 20 - 20400
TOLOSA • Tel.: 943 65 56 95
tkt@ataria.eus • 107.6 fm
Ataria.eus

AGURRA



PILAR LEGARRA
ALKATE ANDREA | ALCALDESA



San Pedro jaiak bertan ditugu eta guztiz aprobetxatzeko egunak dira. Modu asko daude jaiak gozatzeko, bakoitzak berea aukeratuko du noski, baina beti ere elkar errespetatuz egitea nahi genuke, denon interesak erabat lotzea beti erraza ez bada ere.

Legegintzaldi berri baten aurrean gera eta Udala jende berriarekin osatu da ere. Indarberrituta gatoz eta aurretik zinegotzi izan direnek, herritar eta eragile ugariarekin batera antolatu duten aurtengo egitaraua duzue orri hauetan. Une hau aprobetxatu nahi dut denei esker beroena emateko, egin duten lanagatik herriaren alde.

Herriko jaiak dakarten atsedendaldi edo tartearak duen garrantziaz jakitun, utzi zamak alde batera eta gozatu egun hauetaz. Denon artean egin ditzagula gure festak, berdinzaleak, aniztasuna errespetatzen dutenak eta kalean giro ona eta sana irudikatzen dutenak, atsedeen hartu nahi dutenena tartean.

SALUDO

Ya están aquí las fiestas de San Pedro para que las aprovechemos a tope. Hay muchas maneras de disfrutar de la fiesta, cada uno elegirá la suya por supuesto, pero siempre quisiéramos que se hiciera desde el respeto mutuo, aunque no siempre sea fácil equilibrar del todo los intereses de todos-as. Nos encontramos en el inicio de una nueva legislatura y contamos con gente nueva en el Ayuntamiento; venimos pues con fuerzas renovadas para seguir trabajando, como hasta ahora.

En estas páginas tenéis el programa de este año, organizado por concejales-as de la anterior Corporación junto con vecinos y diferentes agentes de la localidad. Quiero aprovechar la ocasión para agradecer sinceramente a todos-as, el trabajo que han realizado por y para Asteasu.

Conscientes de la importancia que tiene el paréntesis que suponen las fiestas patronales, dejad a un lado las cargas y disfrutad de estos días. Que entre todos hagamos unas fiestas, igualitarias, respetuosas con la diversidad y representativas de un ambiente bueno y sano en la calle, respetando también a aquellos que quieren descansar.

¡Vivan las fiestas de San Pedro!

Baserritarren Mahaia, eragiteko

Tolosaldean, Asteasu da bertatik bizi diren baserritar kopuru handiena duen herria. Ia berrehun ustiategi daude herrian; horietatik batzuk bertatik ehuneko ehunean bizi dira eta, beste batzuk, kanpoan lan egin eta baserria aurrera daramate. Ez da kopuru makala.

Baserritar horien kezkak eta arazoak elkarbanatu, eta herrira begira, udalari begira edo legeei begira lan egiteko espazio bat martxan da, duela bi urte ingurutik: Baserritarren Mahaia. Dozena bat lagun biltzen dira, adin, jarduera eta asmo ezberdinetakoak guztiak.

Herrian ospatzen den San Isidro eguna antolatzeko ardurua hartu du taldeak, «beste ukitu bat» emanez. Aurten, esaterako, baserritik bizi izan diren 90 urtetik gorako zazpi pertsona omendu dituzte eta eskolako haurrekin herri kirol saioa antolatu dute. Irailean egiten den azokan, ganadu azokari ere «buelta bat» eman nahi diote.

Horrez gain, ahalegin berezia jarri nahi dute herriko haur eta gaztetxoetan. «Lehengo haurrek bazuten baserriaren berri, baina gaurko haurrek ez dakite ezer, ez tresnen izenak, ez baratzeako landareen izenak... galtzen ari da eta garrantzitsua da ezagutza hori haur eta gazteei transmititzea», esan dute mahaiko kideek.

Haurrak belakien modukoak direla esan ohi da, guztia xurgatzen dutela. «Hor eragin behar da, garai hori egokia da zenbait kontzeptu azaltzeko, etorkizunean ideia horiek buruan izango dituztelako». Bide horretan, asmo zehatza du Baserritarren Mahaia: eskolarekin elkarlanean, herriko baserri ezberdinetara



Aitor Usandizaga, Xabier Zubiaurre eta Edurne Goenaga, Baserritar Mahaiko kideak.

ikasleekin bisitak antolatzea urtean zehar. Jarduera ezberdinak ezagutuko dituzte horrela: artzainak, esne behiak dituztenak, basogintzan ari direnak, baratzean ari direnak... Errealitate ezberdinak, alegia.

Proposamen berriarekin irakaskuntzan eragin nahi du mahaia. «Matematika, historia eta beste ikasiko dituzte, baina behi batek zenbat titi dituen ere ikasiko dute hala». Horrekin batera, baserritarrek sortzen dituzten elikagaien kontsumoa bultzatu nahi dute, «etorkizuneko erostunak gaur egungo haur eta gazteak izango direlako».

Baina ez dute hurrengan soilik fokua jarri. Herritarrei begira ere jardun nahi dute: «geroz eta kaletarragoak gara,



Baserria



eta sektorearentzat ez da ona hori». Ezagutza faltagatik, erosotasunagatik edo lehentasunagatik, jende gutxik hartzen duela konpromisoa diote bertakoa, gertukoa kontsumitu eta zaintzeko. «Hortxe ikusi da Lurtaro kooperatibaren asmoa zein nekez doan aurrera, jendeak ez duelako konpromisorik hartu nahi».

Kontsumo ohituretan eragiteko formulak bilatu nahi ditu Baserritarren Mahaia. Gizakiaren lehenengo premisetako bat da jatea eta janari horren zati bat herrian sortzen da, Asteasun bertan. «Antolatu dezagun gure herria eta antolatu gaitezen gure artean ekonomia zirkular bat sortzeko. Zergatik joan behar dugu Mercadonara produktuak erostera, herrian bertan baldin badauzkagu?».

Eta hor, garrantzitsuena: Prest daude asteasuarrak bertako elikagaiak eskatzen duten prezio hori ordaintzeko ahalegina egiteko? Asteasuar batek lehen sektorearen alde egin lezakeen lehen gauza bertako produktua kontsumitzea da. «Zuzenean erosteko aukerarik ez badu ere, inguruko dendetara joaten denean jakin dezala zer erosi, zer babestu».

Asteasun, beste lekuetan bezala, ez da jaten den adina haragi sortzen. «Euskal Herrian jaten denaren %30 sortzen da, pentsa zer aukera dagoen baserritar izateko, baina, zoritxarrez, egoera halakoa da eta geroz eta gutxiago gara».

Baserritarrek errespetatu eta babestea ere bada herritarrek egin dezaketen ahalegina. «Ezagutza faltak eragiten du askotan gertutasun falta hori; miresmen eta laguntza gehiago behar dugu, elkarren beharra daukagu».

Sektorearen garrantzia, zentzu guztietan

Elikagaiak sortzeaz gain, baserritarra da «ingurumenaren zaindari nagusia». Asteasuk halako paisaia badu, halako larre, mendi eta ingurunea badu, baserritarrek lan egiten dutelako da. «Baserritarrek beraien jarduna uzten doazen bezala, basoa behera dator, zikina herrira gerturatzen ari da, horrek sor dezakeen sute arriskuaz ahaztu gabe».

Hamaika gai daude hausnartu beharrekoak. «Noren esku geratzen ari dira lurrak? Noren esku enpresak? Geroz eta esku gutxiagotan geratzen ari dira gauza guztiak, eta galtzen ari gara horien gaineko kontrola. Erabat galtzen dugun egunean gerta daitekeenaren arriskuaz jabetu behar du herriak. Horregatik da garrantzitsua herrian dauden baserri eta negozioak mantentzea».

Aurrean dituzten erronkei heltzen saiatuko da Baserritarren Mahaia datozen urteetan. Urteko ekintza puntualak antolatu eta eskolarako duten proposamena lantzeko asmoak dituzte eskuartearen, eta herritarrei begira ideia berriak lantzeko tartea ere hartuko dute.

EGITARRAUA

Ekainak 23, ostirala

21:00

San Juan bezperako sua eta dantza.

Ekainak 24, larunbata

18:00

OINKARIren eskutik, herriko haurren dantza emanaldia.

Ekainak 27, asteartea

Denon artean,

txozna herrikoia martxan jartzera!

17:00etatik 20:30etara

Frontenis txapelketako finalak USARRABI frontoian.

21:30

Txintxon eta Mus txapelketa.
21:30-21:55 izen emateak (bikotekide batek gutxienez Asteasun erroldatuta egon behar du).

Ekainak 28, asteazkena

16:00

Herriko haurren futbol 7 txapelketa Lamiategin.

18:00

Lagunarteko Herri Kirol Lehia.

20:00

Txupinazoa (Mundu Bat Asteasuko kideen eskutik) eta sorginaren jaitsiera.

Kalejira

Buruhaundi, erraldoi eta herriko txistulariekin.

21:00

Herri afaria.

Ondoren,

LASKOTXARANGArekin dantza!



ASTEASUKO
SAN PEDROAK 2023

Ekainak 29, osteguna

SAN PEDRO EGUNA

10:00

Diana.

Ondoren

- Dantza-soka.
- Pilota eskolako alebin eta benjaminekin finalak.
- Hamaiketakoa.

18:00


Kalejira: Herriko trikitalariak, txistulariak, koroa, buruhandiak eta erraldoiak.

22:30

BERTSO SAIOA (Sustrai Colina, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta Unai Mendizabal. Gai-jartzailea: Igotz Alkorta).

Ondoren,

erromeria LAIOTZ taldearekin.



Ekainak 30, ostirala

KUADRILLEN EGUNA

11:00

Magia Parrastan ikuskizuna,
Andoni Ituñorekin. Frontoian.

13:00

Ikurrinaren aldeko ekitaldia.

14:30

Kuadrilen arteko bazkaria.

Bazkalostean,

ANDONI OLLOKIEGIren
emanaldia.

18:30

APAR FESTA (Lamiategin).

19:30


ELEKTROTXUFLA
elektrotxarangaren emanaldia
plazan.

22:00

Suzko zezena.

Ondoren kulturarteko gaua:

- TROPICANA SOUND
- DJ Fresa Morango
- Eta sorpresaren bat edo beste...



Uztailak 1, larunbata

HAURREN EGUNA

11:00

Herriko haurrentzako jolas eta lehiaketak.

- Marrazkiak, xakea, krosa...

12:00-14:00

Puzgarriak.

Ondoren,

Haurren bazkaria.

15:00-17:00

Puzgarriak.

18:00

Patata tortila txapelketa.

18:30

Sagardo Dastaketa.

19:30

Herriko elektrotxarangaren emanaldia.

22:00 kontzertuak

- ERROKA
- BAD SOUND
- DJ REIMY

Uztailak 2, igandea

JUBILATUEN EGUNA

11:00

Meza.

11:00

Haurrentzat zirko tailerra Frontoian.

13:00 Herri kirolak,

Aizkolariak:

- Ugaitz Mugerza
- Iker Vicente

Harrijasotzaileak:

- Lierni Ossa
- Lur Errekondo
- Mikel Lopetegi "Urra"
- Paulo Azpiazu

14:30 Jubilatuen bazkaria

- Bertsolariak: Millan Telleria eta Sebastian Lizaso.
- Trikitilariak: Agurtzane eta Ion Elustondo.

18:30

Trikitixa eta pandero eskolaren musika emanaldia.

20:00

ERROMERIA Agurtzane eta Ion Elustondorekin.

21:00

Sorginaren igoera.



Kabitzen da mundu bat Asteasun?



Herria

Blanca Calderon, Asier Baglietto, Ashlyn Simmons eta Stiven Salazar.

Gaurko Asteasu ez da duela 25 urtekoa eta gaurko asteasuarrak ez dira duela 25 urtekoak. Gaur egun, beste herrialde batzuetatik Asteasura bizitzera etorri diren herritarrek 150 inguru dira, hau da, biztanleriaren %10 inguru. Denbora gutxian asko aldatu da herritarren profila eta aldatzen jarraituko du.

Beste herrialde batetik Asteasura iritsi eta egiten al zaie harrerarik? Erakusten zaie herria? Eta bertan dauden baliabideak? Euskarara gerturatzen laguntzen zaie? Herriko ekimenetan parte hartzeko aukerarik eskaintzen zaie?

Galdera horiei erantzun bat aurkitu asmoz eta herritar guztien arteko elkarbizitza sustatzeko helburuarekin hasi da herria lanean, *Mundu bat Asteasun* egitasmoarekin. Pasa den uztailean

jarri zuten proiektua abian Asteasuko Udalak eta Xirimi elkarteak, herriko beste eragile batzuen laguntzaz. Kanpotik Asteasura iritsi eta bertan bizi diren herritarren zerrenda osatu ostean, gonbidapen pertsonalizatua helarazi zieten, bakoitzari bere hizkuntzan, proiektua ezagutzeko bilera batera deituz. Jatorri ezberdineko berrogei lagun elkartu ziren eta haien ekarpenak jaso zituzten.

Asier Baglietto Asteasuko udal kultur teknikariak esan du «arrakastatsuak» izan zirela etorkinekin egindako ondorengo bi parte hartze saioak ere. «Herrira iritsi eta nola sentitu ziren, zeren falta sumatu zuten» galdetu zitzairen, baita «gaur egun nola sentitzen diren eta herritar izateko zer den lagungarri eta zer oztopo» ere. Proiektuan lantzeko pistak atera zituzten erantzunetatik.



Horren ondotik etorri zen jatorriz asteasuarrak diren herritarrekin egindako saioa. Haien iritziak bilduta, prest agertu ziren herritarrak proiektuan parte hartzeko. Eta horrela sortu dute kulturarteko espazioa. Espazio hori jatorri anizteta asteasuarrak, udaleko ordezkariak, Xirimiri elkarteak eta jatorriz asteasuarrak direnek osatutakoa da.

Kulturarteko espazioaren lehen topaketa maiatzaren 6an egin zuten. Hiru foku nabarmendu dituzte, aurrera begira ere lanean jarraitzeko: harrera komunitarioa, hizkuntza aniztasuna eta kulturartekotasuna. «Nola egin harrera hobea etortzen jarraituko duen biztanleriari?». Esaterako, herriko eta eskualde mailako baliabide gida bat prestatzen ari dira. Bestalde, Tolosaldea mailan protokolo bat prestatuko dute eta ondoren Asteasuko errealitatera egokituko da, harrerak nolakoa izan behar duen zehaztuko duena: nork egingo dion harrera etorri berriari, nork lagunduko dion herria eta bertako baliabideak ezagutzen... Eta harrera egingo duten pertsonen formazioak eskaintzea ere bada asmoa.

Jatorriz asteasuarrak diren herritarrek hizkuntzaren inguruko kezka agertu zuten bileretan eta hor jarri dute beste fokua: hizkuntza aniztasunean. «Asteasun euskara bizirik nahi bada, erraztasunak eman behar dizkiegu kanpotik datozenei hizkuntzara gerturatzeko», dio Bagliettok.

Herrian antolatzen diren ekimenetan etorkinek ez zutela parte hartzen, eta Xirimiri elkarteak adierazi zuen kezka horretatik abiatuta hasi zen guztia martxan. Kulturartekotasunean zentratu dute hirugarren fokua. «Kanpotik etorritakoek bertako ekintzetan parte hartu dezaten bultzatu nahi dugu, eta era berean, beraiek herriari zer eskaini diezaioketen ere aztertu behar da».

Aurreiritziak gainditzen

Blanca Calderon kolonbiarrak bost urte daramatza Asteasun bizitzen, ahizparen bidez iritsita. Aitortu du gustura bizi dela herrian, baina kosta egin zaiola harremanak egitea: «Hizkuntza muga bat izan da niretzat harremanak egiterakoan, denek euskara erabiltzen dutelako kalean». Horrez gain, eskola bezalako komunitateetako parte izateak lagundu ahal duela



uste du: «Haur txikiak badituzu, harremanak egitea errazagoa da, baina, nire kasuan, alaba nerabea zenean iritsi nintzen, eta zailagoa egin zait». Orain, *Mundu bat Asteasun* proiektuarekin harreman berriak egiten ari dela dio.

Ez du halako mugarik sentitu Stiven Salazar kolonbiarrak. Bera ere duela bost urte iritsi zen Asteasura, lana medio, aurrez beste bost urte Madrilen egin ostean. «Kalera ateratzea asko gustatzen zait eta taberna giroan ere mugitzen naiz, eta ez dut inolako arazorik izan jendearekin harremanak egiteko». Gutxika, euskarazko hitzak ere ikasten joan da, gehienbat, agurtzeko erabiltzen direnak.

Ashlyn Simmons alaskarrari, gehienbat «eskolako komunitateak» lagundu dio herrian integratzen. 2016an etorri zen Asteasura bizitzera eta «gustura» bizi dela aitortu du. «Zortzi urteko bi alaba ditut, eta iritsi berritan, irakasle batek gomendatu zidan eskolatik irteetan parkean jolasean geratzeko; orduak pasatu ditut bertan eta ezinezkoa da inorekin harremanik ez izatea».

Elkar ezagutzen eta herritar sentitzen hasiak dira pixkana. Harreman pertsonalak egiteak «aurreiritziak gainditzen» laguntzen duela dio Bagliettok. «Ez dira kolonbiarrak edo estatu batuarrak, bera Blanca da, edo Stiven da bestea, ondoko hau Ashlyn den bezala».

Eskuartearen duten proiektua ez da momentu jakin baterako martxan jarri dutena. «Etorkinek iristen jarraituko dute, beraz, prestatu egin behar da herria». Elkarbizitzarako bide horretan, adibidez, festak abiatzeko pregoia etorkinek emango dute, eta ekainaren 30ean, Kulturarteko gaua txertatu dute jai egitarauan, jolasen eta musikaren bidez harremanak eraiki eta sendotu daitezten.

PROGRAMA

23 de junio, viernes

21:00 Hoguera y baile víspera de San Juan.

24 de junio, sábado

18:00 Actuación de los niños y niñas de Asteasu con la colaboración de OINKARI.

27 de junio, martes

Entre todas y todos, pondremos en marcha la txozna popular.

De 17:00 a 20:30 horas Finales del campeonato de frontenis en el frontón USARRABI

21:30 Txintxon eta Mus txapelketa.

21:30-21:55 Inscripciones (al menos una pareja debe estar empadronada en Asteasu).



28 de junio, miércoles

16:00 Campeonato local infantil de fútbol 7 en Lamiategi.

18:00 Amistoso Herri Kirol Lehia.

20:00 Txupinazo (de la mano de los miembros de Mundu Bat Asteasu) y bajada de la bruja.

Pasacalles: Cabezudos, gigantes y txistularis locales.

21:00 Cena popular.

A continuación, baile con Laskotxaranga!

29 de junio, jueves

DÍA DE SAN PEDRO

10:00 Diana.

A continuación,

- Dantza-soka.
- Finales con alevines y benjamines de la escuela de pelota.
- Hamaiketako.

18:00 Kalejira: Trikitilaris locales, txistularis, coro, cabezudos y gigantes.

22:30 Bertsolaris (Sustrai Colina, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin y Unai Mendizabal. Guiados por: Igotz Alkorta).

A continuación, romería con LAIOTZ.





30 de junio, viernes

DÍA DE LAS CUADRILLAS

11:00 Espectáculo Magia Parrastan, con Andoni Ituño. En el frontón.

13:00 Acto a favor de la ikurriña.

14:30 Comida entre cuadrillas.

Tras la comida actuación de ANDONI OLLOKIEGI.

18:30 FIESTA DE LA ESPUMA (Lamiategi).

19:30 ELEKTROTXUFLA ELEKTROTXARANGA en la plaza.

22:00 Toro de fuego.

A continuación la noche intercultural:

- «TROPICANA SOUND»
- «DJ Fresa Morango»
- Y alguna que otra sorpresa.

1 de julio, sábado

DÍA DEL NIÑO

11:00 Juegos y concursos infantiles de la localidad, cross, dibujos...

12:00-14:00 Hinchables.

A continuación, Comida infantil.

15:00-17:00 Hinchables.

18:00 Campeonato de tortillas.

18:30 Degustación de sidra.

19:30 Actuación de la elektrotxaranga de Asteasu.

22:00 **Conciertos:**

- ERROKA
- BAD SOUND
- DJ REIMY

2 de julio, domingo

DÍA DEL JUBILADO

11:00 Misa.

11:00 Taller de circo infantil en el frontón.

13:00 **Herri kirolak,**
Aizkolaris:

• Ugaitz Mugerza

• Iker Vicente

Harrijasotzailak:

• Lierni Ossa

• Lur Errekondo

• Mikel Lopetegi "Urra"

• Paulo Azpiazu

14:30 **Comida de jubilados.**

• Bertsolaris: Millán Telleria y Sebastian Lizaso.

• Trikitilaris: Agurtzane y Ion Elustondo.

18:30 Actuación musical de la escuela de trikitixa y pandero.

20:00 Romería con Agurtzane y Ion Elustondo.

21:00 Subida de la bruja.





Esker onak

Asteasuko Udalaren aldetik, eskerrak eman nahi dizkiegu San Pedro jaiak antolatzea posible egin duzuen guztioi.

- Jai batzordea
- Hurren asanblada
- Gaztelekuko gazte eta hezitzaileak
- Kuadrila eguneko laguntzaile eta antolatzaileak
- Pandero eta trikiti eskolako kideak
- Herriko koroa, txistulariak eta trikitilariak
- Lagunarteko herrikirolen antolatzaile eta parte hartzaileak
- Frontenis txapelketako antolatzaile eta parte hartzaileak
- Herriko elektrotxaranga
- Kukute Guraso Elkarte
- Txozna Herrikoia antolatzaile eta laguntzaileak
- Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatzen aritu zireten lagunak
- Jaietako programan iragarkia jarri duzuen enpresa, taberna eta dendariak
- Villabonako erraldoiak
- Festa honetan modu batean edo bestean, laguntzen ari zireten guzti guztiak

Jaien programak ilusioa dakar buzoira heltzean baina festarik ez litzateke batzuk lan egin ezean. Festa Batzorde, Guraso Elkarte, txoznan zein udaletxean aritutako guztiok jaso gure eskerrak etxean aurrez egindako lan ordu asko baitaude festen atzean





AURREKONTUA

Kontzeptua	Kopurua €
Azpiegiturak (karpa, soinu ekipoa, argindarra...)	20.553,53
Larunbat gaueko autobus zerbitzua indartzea	1.320,00
Musika taldeak.....	14.474,79
Kultur ikuskizunak (antzerkiak, bertso saioak...)	3.369,17
Jan edanak (kuadrilla bazkaria, hamaiketakoak, jubilatuzko bazkaria...)	11.995,00
Haurren ekitaldiak.....	4.216,85
Kirol ikuskizunak	1.500,00
Beste gastuak.....	6.178,00
GUZTIRA.....	63.907,73

AMC

MECANOCAUCHO

KAUTXOAREN APLIKAZIO MEKANIKOAK


30 urte baino gehiago
bibrazioaren aurkako sistemak egiten

☎ 943 696 102 • Fax: 943 696 219

www.amcsa.es

TXORTU

Lantegiak, S. Koop.



Asteasuko Ind. | ASTEASU | T. 943 69 17 78

ataria

www.ataria.eus • 107.6 fm

Desde el año 1982



skinter

ENVASADOS EN SKIN, BLISTER
Y MOLDEO POR VACÍO

Asteasuko industrialdea, 46-47
20159 ASTEASU | www.skintersl.com



COVIRAN ASTEASU

Zorionak Asteasu ta ondo pasa festak!

☎ 943 691 104
Kale Berria, 10 · Asteasu



MECANIZADOS
MAIMEN S.L.

Asteasuko Industrialdea - A Gunea 13. pabiloia
20159 Asteasu (Gipuzkoa)
☎ 943 69 25 45 · Fax: 943 69 12 08
maimen@euskalnet.net

**MECANIZADOS DE MANDINADRORA
Y FRESADO CNC SOBRE PLANO O CROQUIS**



TRANSPORTES
IRURZUN

Tel: 943 694 220
638 669 623



607 464 033

trafico@ttesirurzun.com

**SAN PEDRO JAÍ ZORIONTSUAK
OPĀ DIZKIZUEGU!**




roteta

Ondo pasa festak!!

**PIEZEN
MEKANIZATZEA
ETA MUNTAIA**

**MECANIZACIÓN
DE PIEZAS
Y MONTAJE**

ASTEASU TEL. 943 69 69 14



AXUN
ILEAPAINDEGIA-ESTETIKA

*Ondo pasa
San Pedro jaiak*

Kale Berria, 7A - ASTEASU
☎ 943 694 403

TRAMETAL

Protegemos superficies para su permanencia

Pol. Industrial Asteasu, Zona F – Pab. 81-82, · Asteasu
trametal@trametal.es · Tel. 943 69 30 59

www.trametal.es

ERAIKUNTZAK · ASFALTOAK

BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.

Bº Elizmendi, 44
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)
Tel. 943 690 178

bixenteotegi@bixenteotegi.com



MAIOZ ARDOAK

Oskarbi etxea - erreka bailara
ASTEASU
Tel.: 943 69 24 18




transportes
segurola

servicio de almacenaje

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

Asteasuko Ind. E-gunea, 75 · Asteasu 20159 Gipuzkoa
☎ 943 69 03 00 / 943 69 09 62 · Fax 943 69 01 96



Aneli

ILEAPAINDEGIA ETA ESTETIKA

Kale Nagusia 15 - ASTEASU 618 210 106

TMA

MONTAJES INDUSTRIALES


Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Asteasuko industrialdea H118 | ASTEASU | M: 626 34 58 99



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

609 434 910 · Tel./Fax: 943 693 212
Apartado 52 · Villabona
www.transporteslakunza.com



Mecanizados de precisión sobre plano

OMICRON


*Jai Zoriontsuak!
¡Felices fiestas!*

ARIZNABARRETA S.A.
Asteasuko Industrialdea, 40 (B gunea) · Asteasu
© 943 691 662 · Fax: 943 691 024
www.ariznabarreta.com

Jose M^a Beldarrain

Harategia - Urdaitegia

- Labeldun haragia
- Etxeko oilasko eta jakiak



*Festa onenak opa
dizkizue herritar guztiei !!!*

© 943 691 918 · Kale Nagusia, 19 · Asteasu

**JAI ZORIONTSUAK PASA!
GORA ASTEASU!**




mekanizatuak

PIEZEN MEKANIZATZEA ETA MUNTAIA

ASTEASUKO INDUSTRIALDEA D GUNEA 62 ZBK.

TEL: 943 69 63 67



TRANSPORTES
Ormazabal

Iker Ormazabal

Zilar kalea, 2 | ASTEASU
M: 680 365 181 | Tel. 943 69 21 71



ITURRI - ONDO
Jatetxea

festa onenak opa dizkizuegu!

T. 943 69 13 31 | Kale Nagusia Kalea, 5 | ASTEASU

Polifluor

ERABILPEN TEKNIKORAKO PLASTIKO BEREZIAK

Asteasu Ind. - Gunea, 99/100 · 20159 Asteasu
☎ 943 694 119 · Fax 943 690 362
ventas@polifluor.com
www.polifluor.com



Trabajando cada día por un envasado verdaderamente sostenible

Envasado en Atmósfera Modificada - Envasado para farma
Envasado hortofrutícola - Envases para huevos

Asteasuko Industrialdea , A-GUNEA 10 (ASTEASU)

talleres
ASTEASU

**Mota guztietako autoen
konponketak eta zerbitzu azkarra**

943 69 22 06
Agote-Enea etxea, 2 · ASTEASU



Okindegia - Kafetegia - Gozotegia
KABELA

☎ **943 696 405**
Nagusia, 3 · Asteasu



asmek

desde 1986

Industrialdea B Gunea nº38
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)
Tel. +34 **943 692 230** · Fax +34 **943 690 899**
asmek@asmek.es · www.asmek.es



PATXINE
Jatetxea

943 69 10 25 | Errementari Kalea, 1 | ASTEASU



GORA ASTEASU!



OHARRAK

- Jai alai eta umoretsuak desio ditugu.
- Parte hartu, ondo pasa, eta ingurua errespetatu.
- Zaindu auzotarrak, neurtu bolumena bereziki ordu txikitan.
- Kontsumoekin arduratsu izan. Alkoholak edo kontsumoek ez dute justifikatzen ezer!
- Ostiral eta larunbat gauean, goizalderarteko autobus zerbitzua jarri dugu Tolosara, autoa erabili beharrik ez izateko. Jokatu arduraz, merezi du!
- Gogoratu uztailaren 2an Frantziako Tourra pasako dela Asteasutik, eta Villabona aldetik herriko sarbidea itxita egongo dela eguerdi partetik, arratsaldera arte.
- Norbaiti zerbait gertatuz gero, LAGUNDU iezaiozu.
- Festetan ere birziklatu, berrerabili eta zaborra gutxitu.
- Ez oztopatu garbiketako lanak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela gainontzekook festetan ondo pasa dezagun.
- Komun publikoak erabili.
- Asteasuk EZETZ! dio indarkeria matxistaren aurrean.
- Deseamos unas fiestas donde prime la alegría y la diversión.
- Participa, disfruta, y respeta a los demás.
- Cuida a los vecinos/as, regula el volumen, sobre todo de noche.
- Sé responsable con tus consumos. Ni el alcohol ni cualquier otro consumo justifica nada!
- El viernes y sábado, hemos organizado un servicio de autobús adicional hasta Tolosa, hasta la madrugada, para no tener que utilizar el coche. Actua responsable, merece la pena!
- Recuerda que el 2 de julio pasa por Asteasu el Tour de Francia, y el acceso dirección Villabona permanecerá cerrado al mediodía y parte de la tarde.
- Ayuda a quien lo necesite.
- En fiestas, recicla, reutiliza y reduce la basura.
- No obstaculizar el trabajo del personal de limpieza. Algunos deben trabajar para que otros pasemos buenas fiestas.
- Utiliza los baños públicos.
- Asteasu dice ¡NO! ante la violencia machista.